




3 IRTEERA Oinatzekin Zumaiaiko flysch-an barrena

Oinatz taldeak familian egiteko irteera berezia antolatu du. Apirilaren 18an, larunbata, Zumaian dagoen flysch-a bisitatuko dute. Irteera ohi bezala irekia da eta honetan parte hartu nahi duten herritar guztiak izango dute aukera. Irteeraren prezioa partaide kopuruaren arabera izango dela aipatu dute antolatzailerak, gehienez 8 euro. Irteera honetan parte hartu nahi dutenek dagoeneko izena eman dezakete Ttakuneko bulegora hurbilduta.

4-5 ELKARRIZKETA Maialen Chourrautekin solasaldia

Maialen Chourraut herriko piraguistarekin hitz egin dugu datozen hilebeteetan dituen erronken inguruan. Rio de Janeiroko Joko Olinpikoak dira helburua eta aurretik egin beharreko lan gogorraz hitz egin digu herrira egindako bisitan. Amatasunarekin goi mailako lehia uztartzeaz ere mintzatu da kirolaria.



3. Musika Astea antolatu du Kultura sailak Estilo ezberdinetako lau talderen emanaldiez gozatu ahal izango da

Datorren ostegunean, apirilak 16, hasi eta igandera bitartean izango da musikari eskainitako egitarau berezia Manuel Lekuonan. Honetan musika estilo ezberdinak entzuteko aukera izango da, hirugarren edizio honetara gonbidatutako musika taldeak dira Hirubi Boskotea, Mikel Urdangarin, Ars Combinatoria eta Suberri Akordeo Orkestra.



Mikel Urdangarinek kontzertua eskainiko du Manuel Lekuonan datorren ostiralean.

Hirugarren urtez udaleko kultura sailak musika astea antolatu du Manuel Lekuonan. Ekimena herriko musika taldeekin egindako elkarlanaz sortu zen duela bi urte. Aurreko edizioetan izandako harrera ona errepikatu nahi dute antolatzailerak. Besteak beste, Ruper Ordorika, Kalakan, Arimaz Kamara Orkestra eta Santa Zezilia Abesbatza eta herriko Zero Sette Akordeo Orkestrak eskaini zuten kontzertua.

Musika Astea datorren ostegunean hasiko da Hirubi Boskotearen kontzertuarekin. Musikenen, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia, 2013an sortutako taldeak kritika oso onak izan zituen Donostiako azken Musika Hamabostaldian. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da.

Ostiralean berriz, apirilaren 17an, Manuel Lekuonan eta ordutegi berean, 20:00etan, Mikel Urdangarinen kontzertuaz gozatu ahal izango da. "Mikel Urdangarin 2015" biraren baitan egingo du abeslariak geldialdia

Lasarte-Orian. Musikan dagoeneko 17 urte daramatza eta "beti musikari onen altzotik kantari. Askotan errazegi erabili dugun hitzari heldu nahi nioke sendo, esentziari alegia. Nire oraingo mugak ezagutu nahi ditut eta horiek gainditzen saiatu. Etxeko sukaldeko bakardadean kantatzen eta sortzen duen Mikel hura erakutsi nahi nizueke lehenengoz, kantu zahar eta berriak lagun". Sarrera 5,50 eurokoa izango da.

Doako emanaldiak

Larunbatean, apirilaren 18an berriz, Ars Combinatoria taldearen emanaldia izango da San Pedro elizan. Talde madrildarra herrian egon zen urtarrilean Danok Kideren eskutik Brigitarren komentuan. Ibilbide luzeko taldea da. 1991n jaio zen Ars Combinatoria. XVI. mendeko polifonia espainiarra abesteko, J.S. Bach konpositore ezagu-



Ars Combinatoria taldea herrian izango da bigarren aldiz.

naren abestiak jotzeko zein musika propioa garatzeko interesarekin hasi ziren jotzen. Hainbat hiritan eskaini dituzte kontzertuak, eta baita Ingalaterran eta Italian ere. Emanaldi hau 20:00etan izango da eta sarrera doakoa izango da.

Herriko talde batek eman- go dio bukaera musikari

eskainitako egitarauari. Suberri Akordeo Orkestrak hain zuzen, igandean, apirilak 19, 12:00etan eskainiko du kontzertua kultur-etxeko areto nagusian. Honetara ere, sarrera irekia izango da.

Musikazaleek beraz, izango dute aukera bertatik-bertara musika estilo ezberdinez gozatzeko.

Gipuzkoako
Partaidetzako
Aurrekontuak

2 MILIOI euro
BURUNTZALDEA hobetzeko

Egin zure proposamena www.aurrekontuahobetzen.eus
webgunean eta parte hartu zure herriko tailerlean:

- LASARTE-ORIA. Apirilak 14, asteartea, 19:00etan, VILLA MIRENTXUN
- Apirilak 28, asteartea, 19:00etan, VILLA MIRENTXUN
- Gaia: Mugikortasuna

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

Gipuzkoa
BERRIA



Neure kabuz



Gorka Alvarez
Ostadar SKT eta LOKE

Batzuetan kritikarako erabili izan dut zutabe hau, besteren batean iritzia plazaratzeko txoko polita iruditu zait honakoa, gaurkoan aldiz, bi goraipamen egiteko baliatuko dut.

Bereziki, herri mailan eta kirol arlo zehatz batzuetan lan handia egin duten bi talde azpimarratu nahi ditut.

Ostadar SKTko futbol saila. Herriko erreferente garbia da futboleko eta betidanik hor egon denaren sentsazioa baldin badugu ere, urte askotan zehar, pertsona askok botatako izardiari esker dago gaur egun Gipuzkoa eta Euskadi mailako maila lehiakorrenetan. Ezin ahaztuko dugu, urteetan zehar Gipuzkoako mailetan neskek emandako pozez gain, azken urteotan, gizon-zekoetan, senior mailan, gazte mailan eta kadete mailetan taldea zein lehiaketetan ari den borrokan. Ostadarrek herriko kirola sustatzeko duen helburu nagusia betetzeaz gain, talde asko maila altuko lehiaketara eramatea lortu dute eta pauso hori ematea ez da batere erraza. Zorionak eman eta nire omenaldi txikia lerro hauen bidez, isilpean lanean ari diren eta egon diren guzti horiei.

Bestetik, ezin ahaztuko dut LOKEko atletismo saila. Urte askotako lanak eta egunerokotasunean burututako kalitatezko entrenamenduek, gero eta emaitza hobekia lortzera eramanez taldea. Argi dago, gaurko egunez, LOKE herriko atletismoan erreferente izateaz gain, bai gizonzkoen, nahiz emakumezkoen mailetan ere, emaitza bikainak lortzen dituela eta hori noski, ez da egun bateko lanarekin lortzen. Nire miresmena adierazten diet, bertan lanean aritzen diren entrenatzaile, laguntzaile eta atleta guztiak. Atletismoak herrian bere txokoa izatea eta lehiatzen emaitza paregabeak lortzea, ez baita askotan erraza eta zuek lortzen ari zarete. Ziur nago bat baino gehiago bere talaiatik begira pozik izango dela horrenbeste maite zuen taldeak tinko jarraitzen duela ikusita.

Zorionak eman bi taldeetako sail hauei eta noski beste hainbat sailetan lanean ari diren pertsona anonimo eta kirolzaleei ere. Zorionak eta eutsi goiari!

Zorion agurrak



Asier
Zorionak zure 10. urtebetetzean Irati, aita eta amaren partetik!!



Artai
Zorionak bitxo 7 urte betetzean, atxe eta amatxon partetik!!



Unai
Zorionak txapeldun!! Zure 8. urtebetetzean ongi pasa. Muxu asko famili guztiaren partetik!



Irati
Zorionak! Zazpi muxu aita, ama eta Leireren partez.



Nahia
Zorionak printzesa! Ondo pasa egun honekin. 9 txokolatzeko muxu. Maite Zaitugu. Maialen, aitatxo, eta amatxoren partez.



Aizpea
Zorionak printzesa! Marrubizko hiru muxu gozo. Garazi, Julene, amatxo eta aitatxoren partetik.



Oier
Zorionak pottoko zure 5. urtebetetzean, txokolatzeko muxuak, famili guztiaren partetik!



Eluxka
Zorionak polita!! Zure urtebetetzean ondo pasa izana espero dugu. Hamar muxu pottolo.



Sara
Zorionak sorgintxo! Zazpi marrubizko muxuak eta besarkada goxoak guraso eta familiaren partetik.



Amaieur
Zorionak gure etxeko printzesari! Oso ondo pasa zure egunean 7 muxu potolo etxeko guztien partetik.



Malen
Zorionak etxeko piratari!! 7muxu pottolo amatxo, aitatxo eta familia guztiaren partetik.



Iraia
Zorionak Bihotza! Zortzi muxu pottolo Leire, amatxo eta aitatxoren partetik.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Gela alokatzen da Lasarte-Orian. 674 69 44 97, Txema.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66.
- Urnietan Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai. Garajea eta trastelekuarekin. 626 05 74 85.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da externa moduan edo orduka garbiketa edo zaintza lanak egiteko. 669 93 10 26.
- Emakumea eskaintza da tabernan edo zaintzan orduka edo externa moduan. 645 53 04 90.
- Etxerako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo moduan lan egiteko. 676 18 84 11.

- Klase partikularrak ematen dira batxilergo mailako letretako irakasgai guztiak, latina barne. 600 76 60 68.
- Interna edo externa bezala lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Esperientzia eta paperak egunean ditut. 645 78 72 72

Bestelakoak

- Gitarra klase partikularren bila nabil Lasarten. 663 34 28 62 Ekiñe.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Jon Urruzmendi Aldalur, martxoaren 30ean.
- Ane Jimenez Ullo, martxoaren 30ean.
- Noah Santos Cabaco, martxoaren 29an.
- Oier Perez Saez de Maturana, martxoaren 25an.
- Ane Orroño Lazaro, martxoaren 24an.
- Arane Erro Rojo, martxoaren 18an.



Heriotzak

- Jose Mari Erasquin Lazkano, apirilaren 6an, 80 urte zituela.
- Lorenzo Arizmendi Aduriz, apirilaren 2an, 61 urte zituela.
- Jose Martija Arruti, martxoaren 27an, 65 urte zituela.
- Inaxio Intxausti Murua, martxoaren 27an, 90 urte zituela.
- Agustina Martin Gomez, martxoaren 24an, 81 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 10**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Larunbata, 11**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Igandea, 12**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astelehena, 13**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Asteartea, 14**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Asteazkena, 15**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Osteguna, 16**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 371629
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal eskalategia 943 361621
- Munterri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Jon Altuna E.
txintzarri@txintzarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguroa, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

ELKARBIZI

Elkarbizitza lantzen

Bakerantza dokumentala ikusi eta solasaldia egin zuten



Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan 40 lagun bildu ziren, Elkarbizi plataformaren saioan.

'Bakerantza-Al final del túnel' dokumentala ikusi eta eskal jendartearen elkarbizitzari buruzko solasaldia egin zuten Manuel Lekuonan joan den astean. Ia bi orduko dokumentalean, sufrimenduaren hainbat aurpegi eta ertz ikusteko aukera izan zuten Elkarbizi plataformak antolatutako saiora bertaratu ziren 40 lagunek.

TXINTXARRI

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten Eterio Ortega Santillana zuzendariaren 'Bakerantza' dokumentala 2011n. Zabaltegi saria eskuratu zuen ETako kide ohien, biktimen eta senideen iritziak jasotzen dituen Elias Querejetaren ideia batean oinarritutako lanak. Tartean ageri dira Maite Goizueta herritarra eta haren senarra Kepa Pikabea Naclares bideko preso ere.

Dokumentalaren ostean, elkarbizitzari buruzko solasaldia egin zuten. Bertan aritu ziren, besteak beste, sufrimenduaz, biktimez, egoera

politikoaz eta etorkizunaz hitz egiten Jexux Artetxe, Joxean Rekondo, Jexux Mari Mujika eta Pello Sasiain.

Bakegintzan, aurrera

'Merezi izan al du ETaren indarkeriak?' Galderari erantzun nahi izan zioten dokumentala ikusi eta osteko solasaldian, Euskal Herrian hiru jarrera daudela nabarmenduz: "Batzuek 'noski, ia lortu dugu' esaten dute. 'Izugarri lortu dugu nahiz eta oso gogorra izan den', diote. Beste batzuek onartzen dute 'guk lortu dugun hori, gu gabe, ETarik gabe' ere berdin lortuko zela. Hirugarren postura bat ere bada Euskal

Herrian, pentsatzen duena askoz gehiago lortuko zela ETarik egongo ez balitz", adierazi zuten.

"Atzera begiratu ordez, bakegintzan aurrera begiratu beharra dago. Bakegintzan aurrera egingo da herri honetan ez ETako presoen zain egonda, ez nagusiki politikoen zain egonda ere, gizarte zibilean kapaz baldin bagara egiaz bakearen alde egoteko, hau da, diferente pentsatzen dutenekin hitz egiteko, errespetuz aritzeko, gure herriko pluralitatea onartzeko, orduan egingo da aurrera. Ausardia gehiagorik gabe ez dugu bakerik egingo. Bakioitzak eman behar du urratsa dogmak eta artaldeak alde batera utzita", esan zuten saioan.

Amaieran herritarrek galderak egin, euren iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Harrera ona izan zuen Elkarbizi plataformak prestatutako ekimenak.

Flysch-a ezagutu Oinatzen eskutik

Oinatz taldeak familian egiteko irteera berezi antolatu du oraingoan. Apirilaren 18an, larunbata, Zumaian dagoen flysch-a bisitatuko du taldeak.

Antolatzaileek azaldu digutenez, goiz pasa ederra egiteko aukera izango da. Era berean, bidaia trenean egingo dela jakin arazi dute.

Ekosistemak

Apirilaren 18an, goizeko 8:45ean Euskotren geltokian bildu eta Zumaia egingo dute bidaia.

Lehenik Algorri, Zumaia natur baldiaren interpretazio zentrora hurbilduko da taldea.

Honetan Zumaian dauden ekosistema ugari ezagutzeko aukera paregabea izango da: Biotopo Babestua den marearteko eremua eta labarrak, Batasuneko Garrantzizko Lekua den Urola itsasadarra eta denbora geologikoaren 50 milioi urte baino gehiagoko historia jasotzen duen Flysch-a.

Flysch-a

10-15 minutuko atsedendia-oren ostean, flysch-eko ibilaldiari hasiera emango zaio.

Zumaia, Deba eta Mutriku arteko itsaslabar ikusgarriak gure planetako historiaren 60 milioi urtetako informazioa gordetzen du. Gainera,

mundu mailako azaleramendu handi eta ikusgarrienetarikoa da Zumaian dagoena.

Ibilbidea erreza da, kilometro bat eta erdiko. Beraz, ordu bat eta erdiko paseoa izango da eta geldialdi ezberdinak egingo dira azalpenak eskaintzeko.

Guztira zentroko eta flysch-eko bisitak hiru ordu iraungo ditu, 10:30etatik 13:30ra. Amaitzean, bazkariaren txanda izango da.

Oharrak eta izena ematea

Oinatz taldekoek aipatu dutenez, bisita gidatuaren prezioa, parte hartzaileen arabera izaten da, gehienez 8 euro.

SAN PEDRO JAIK

Programak garatzeko diru-laguntzen oinarriak aurkeztu ditu Udalak

2015ko San Pedro jaietako jardueren programei diru-laguntzak emateko oinarriak aurkeztu ditu Lasarte-Oriako Udalak, herriko talde, elkarte eta norbanakoei zuzenduta.

Egoitza Lasarte-Orian duten pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuak izan ahalko dira laguntzen onuradun, betiere interes orokorreko jardueraren bat egiten badute San Pedro Jaieen esparruan.

Onarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun izateko, eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: diru-laguntzen eskatzaileen erregistro orokorrean altan egotea; diru-laguntzarako eskabide normalizatua behar bezala beteta izatea; 2015ko San Pedro jaietan egingo den programaren edo jardueraren deskripzio xehatua eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo horretarako legez ezarritako beste edozein lekutan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hasita apirilaren 20ko 13:00ak bitartean.

HAUTESKUNDEAK

Zerrenden erreklamazio epea

Hauteskunde-eroldaren zerrendak jendaurrean jarri dira, 2015ko apirilaren 7tik 13ra, biak barne, Udal Bulegoetan eta Donostiako Jose Maria Soroa kaleko 23an dagoen Hauteskunde-Erroldaren Bulegoetan, edozeinek, 2015ko otsailaren 1eko bere egoera kontuan hartuta zerrendatik kanpo utzi bada edo behar ez bezala agertzen bada, erreklamatu ahal izan dezan.

Halaber interesatuek zerrenda horiek kontsultatu ditzakete <https://sede.ine.gob.es> weborriaren bitartez. Erreklamazio gileek erreklamazio inprimakia sinatu beharko dute, eta nortasun agiria, gidabaimena edo pasaporte originala aurkeztu beharko dute, bai eta aipatutako agiri horietako baten fotokopia bat ere, erreklamazio inprimakiari gaineratzeko.

PSE-EE

Sozialistek 'Hauteskunde Legea haustea' leporatzen diote Bilduri

Jesus Zaballos alkategai sozialistak ohar bidez salatu du koalizio abertzaleak 'Hauteskunde Legea' urratu duela Beterri Garapen Agentziako liburuxka eta 'Ongi Etorri' aldizkaria etxeetako buzoietan banatzeagatik: "Hauteskunde deialditi aurrera debekatuta dago botere publiko batek burututako lortu edo proiektuak ekartzen dituen inprimakirik etxez etxe banatzea".

Bildu "epea kanpo" dabilela salatu du, Ministro Batzordeak onartu eta BOEn argitaratuta baitzegoen ordurako: "Ongi Etorri aldizkariarekin, Bildu guztion dirua erabiltzen ari da propaganda egin eta hauteskunde kanpaina finantziatzeko".

Talde sozialistak ez du baztertzeko Hauteskunde Batzordearen aurrean salaketa jartzea, behin zerrenda guztiak ofizialki osatzen direnean.



Zumaia flysch-a ezagutzeko Oinatzeneko lagunek. ALGORRI INTERPRETATIO ZENTROA

Honetaz gain, bi ohar eskaini dituzte, treneko txartelak parte-hartzaile bakoitzak erosi beharko ditu eta bazkaria bakoitzak etxetik eramandakoa izango da.

Oinatz taldeak antolatutako irteera honetan parte

hartu nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute. Horretarako Ttakuneko bulegora hurbildu, 943 37 14 48 telefonora deitu edo kultura@ttakun.com helbidera mezu bat bidali dezakete interesatuek.

Maialen Chourraut Piraguista

“Ez dakit zer gustatzen zaidan gehiago, piraguismoa ala lehia bera, konpetizioa”

Eguzkipean egin dugu hitzordua Maialen Chourrautekin (Lasarte-Oria, 1983). BAT Basque Teamen mediku-azterketa bat pasatzeko bidaiatu du La Seutik herria, eta tartetxo bat kendu diogu. Ane, selekzio probak, herria, lehia, entrenamenduak... Hamaika kontu Zumaburuko parkean. Hainbeste, literaturaz ere aritu gara. Andrea Agassi tenislari ohiaeren 'Open' autobiografia-liburua irakurri du, Iñaki aitak gomendatuta. Eta Maialen ere ari da bere istorioa idazten. Amatasunaren kapitulu ireki zuen duela ia bi urte, eta idazten hasi orduko, beste atal bat gehitu nahi dio liburuari. Ekin dio 'Rio 2016' kapituluari. Hona hemen lehen paragrafoak.

Jon ALTUNA EGITEGI

Urte preolimpikoa da zuretzat Maialen, baina postamatasun urtea aldi berean. Koktel ederra da. Konbinazio arriskutsua ere bai agian... Urte ederra dut aurrean, tentsio askokoa. Gauza politik egiteko gogoarekin nago urte preolimpikoa Riorako plazak jokoan jartzen direlako. Hitz batean urte mugitua izango dela esango nuke. Orain arte nahiko lasaia izan da, baina jadanik martxan gaude eta ez gaitu inork geldituko.

Nola uztartu dituzu Aneren etorrera eta eliteko kirolaren exigentzia? Ama eta aldi berean kirolaria izan nahi nuen, puiaguista. Hori nola egin ordea ez nekien. Pixkanaka etorri dira gauzak, egoera berriak ikusten eta aldi berean ikasten ari gara.

Fase ezberdinak egon dira, lehenengo Ane eduki nuen, hilabetera entrenatzen hasi nintzen, Munduko Txapelketa buruan. Hiru hilabete nituen zitarako, nik parte-hartu nahi nuen, baina zesareak gorputz txarra utzi zidan eta ez nintzen nahi bezain fin aritu.

Hala ere, saiatu egin zinen. Ez zenuen berehalakoan etsi. Politia izan zen iazko denboraldia, baina gogorra aldi berean. Anerekin nola bidaiatu, nola neurtu indarrak... Gauza berri askoko urtea. Abersagarria izan zen, ikastekoa. Baina ezin izan

nuen guztiarekin. Gaixo jarri nintzen udaran, hiru infekzio izan nituen eta saiatu arren, gorputzak ez zuen eskatzen niona ematen. Erronka zaila zen, Ane elikatu, zaindu eta aldi berean goi-mailako entrenamendu eta lehiakete egin behar izan nien aurre. Banekien ez nengoela nire onenean, baina ikusten nuen Rioko Joko Olinpikoetarako bidean denboraz oso ondo gindoazela. Jaitsiera batzuetan oso azkarra izan nintzen, berez oso gaizki aurkitzen nintzen arren. Mantso, pixkanaka egin dituguz gauzak. Nahi adina denborara Aneri emanez gainera, oreka da gakoa.

Aurten hobeto nago. Urte honen hasierara arte titia ematen nion Aneri eta desgaste handia izan da niretzat. Orain jadanik indarra hartzen hasi naiz eta gora eta gora egiten ari naiz. Hasi naiz ondo sentitzen, hasi naiz azkar joaten. Anek gauzak asko errazten ditu oso neska txintxo delako, alai.

Palista al dator? Gimnasio-eramatzen duzula ikusi dut argazkiren batean, kayakean ere sartu duzu alaba zure altzoan...

Berak egunero ikusten duena gimnasioa eta piraguak dira, ama imitatzen saiatzen da. Ordu asko sartzen ditu kanalean raftinga eta piragueti begira, aire librean dago, gustura egoten da oraingoz, baina handitzen denean ikusiko dugu palista datorren.

Zuk K1ean konpetitzen duzu, baina Chourraut-



Piraguismoaren etapa amaitu ostean zer egingo duen ez du argi Chourrautek, Enpresaritzatik ikasketak ditu.

Etxaniz familia K3an doa. Xabi Etxaniz bikote eta entrenatzaileak, Anek eta hirurok osatzen duzue tripulazioa. Ur biziak dira horiek ere, ezta?

Talde bat osatzen dugu, elkarrekin goaz. Xabik 13 eta 16 urteko beste bi seme ere baditu, piraguistak. Xabi federazioko ekipo guztien entrenatzailea da, horregatik bidaiatzen dugu Anerekin batera, familia guztia joaten delako kanpora. Gainera Raquel Aneren zaintzailea ere espediziora batzen da eta berak laguntzen gaitu entrenatzen dugun bitartean. Ane gusturen ama eta aita dauden tokian egongo dela uste dugu eta horren arabera saiatu gara antolatzen.

Irakurri nuzun Ane zurekin bidaiaren eramatea 'kapritxo' ez, 'beharra' zela zuretzat.

Orain Ane gabe bidaiatzea... Ez dut ikusten. Ez beregatik eta niregatik gutxiago, oso ondo pasatzen dut berarekin, bere bero hori behar dut. Politia da entrenatzeatik atera eta alaba hor edukitzea, harekin jolastea, deskonektatzeko.

Anek entrenamendu sisteman aldaketarik egin duzu? Konpetizio aurretako errutina aldarazi dizu? Lehen ezin izaten zenuen inork ikusi, inorekin hitz egin konpetizio egunean. Milimetroan aztertu nahi izaten zenuen ibilbidea. Lehiaketa %100ean, zentzu guztiak horretan jarrita... Eta orain, Ane dago.

"Ama eta aldi berean kirolaria izan nahi nuen, puiaguista. Hori nola egin ordea ez nekien. Pixkanaka etorri dira gauzak, egoera berriak ikusten eta aldi berean ikasten ari gara Aneren etorreraz geroztik. Fase ezberdinak egon dira"

Dena, entrenamenduak eta lehiaketak, lehen bezala osatzen ditut gutxi gora behera. Lehen egia da txapelketak neuzkanean denboraz guztian konpetizioan sartuta egoten nintzela, detaile minimoena analizatzen.

Orain, aurretik egiten ditut lanak, hori bai, gero Anerekin joaten naiz, zerbait landu behar badut, Anerekin batera joaten naiz. Ez naiz lehen bezain itxia egoten. Lehen 24 orduak piraguismoarentzat ziren, baina orain banatu egiten dut denboran alabarekin egoteko. Egoera aldatu egin da eta orduak ahal ditudan hoberen aprobetxatzen saiatzen naiz.

Mentalki gogortzeko balio izan zizun urteak behintzat, ez da gutxi. Irakaspen ona da.

Egia esan, ez zen guztiz urte txarra izan. Lehengo urteko Mundialeko sailkapen probak irabazi egin nituen, baina mastitis bat izan nuen orduan. Minez eta leher eginda, mareatu egiten nintzen jaitsieretan. Ez nengoan egoera onean eta Munduko Txapelketan ez nuen nire maila ematerik izan.

Aurten ez zait hori gertatuko, sasoi ona daukat, indartsu sentitzen naiz. Lehiakorra izan nahi dut ez Londreseko

"Helburu nagusia da Rio, dena Riora begira dago eta plaza bakarra jokoan. Beste neskek azkar doaz. Nik alde daukadana esperientzia da, eta indartsuagoa naizela ere bai. Aurten ez dut ezer dantzan utzi nahi"

Mundialean bakarrik, goian egon nahi dut jaitsiera guztietan, finalak nahi ditut, finalak behar ditut. Izan ere, Munduko Kopan, Europako Txapelketan eta Mundialean finalera sailkatuz gero, Federazioak Riorako bonifikazioak ematen ditu datorren urteko selekzio probei begira eta komeni da bonifikazio horiek pilatzea.

Rio de Janeiro, hasi da ametsa.

Helburu nagusia da Rio, dena Riora begira dago eta plaza bat bakarrik dago hara joateko. Beste neskek azkar doaz, jaitsiera azkarrak egiteko gai dira. Nik alde daukadana esperientzia da, eta indartsuagoa naizela ere bai, eta hori erakutsi nahi dut. Aurten ez dut ezer dantzan utzi nahi.

Rioko Joko Olinpikoetarako bidea ez da erraza, prozesu konplikatu da.

Joko Olinpikoetara ezin da edonon joan, plazak oso mugatuak dira. Nire kategorian, K1 nesketan, Batzorde Olinpikoak hamabost plaza banatzen ditu. Mundialean sailkatzen diren lehenengo 15 herrialdeei emango zaizkie. Plaza lortzekotan, Espainiarentzat lortzen da, ez piraguistarentzat.

Riora zein joan datorren urteko apirillean erabakiko da Seun eta Paun egingo diren selekzio probetan. Zortzi jaitsiera egingo dira bi leku horietan, eta sei jaitsiera onenek puntuatuko dute plaza olinpiko hori lortzeko. Sailla-

pen probez gain, lehen aipatu ditudan bonifikazioak daude. Txapelketa handietako finaletan sartuz gero, puntuazioa extra bat ematen dute eta selekzio probetako puntuak batuta onena dena, huraxe joango da Riora.

Selekzio probak bi aste-burutan izaten dira. Jakin ezazu, lesio bat, gaixo jarri edo konpetizioa gaizki hasi eta konfiantza faltak edo tentsio gehiegi izateak lan guztia pikutara bota dezake... Hoberena lasai joatea da, gauzak lehenagotik ondo eginda izatea. Plaza horren jabe egiten den neska nahikoa hesi pasatuko neska izango da, nahikoa egoera zailak pasa dituen eta prestatuta egongo da Rion ondo lehiatzeko. Konplikatu da, baina Joko batzuk irabazteko ez dago beste biderik, tentsio eta presio hori entrenatu egin behar da. Hala ere, Londreseko Mundialean ez badugu plaza lortzen, Rioko Jokoak akabo.

Gaiz aldatuta, zure aitak, Iñakik, erretiroa hartuko du Ekain liburu dendan, baina zu oraindik ere istorio polita idazten ari zara. Zenbat kapitulu geratzen zaizkio? Ez dakit. Egutegia luze daukat jarrita. Ane, gogoa, motibazioa, datorren urtean Rion gertatu daitekeenaren arabera, bertan izango naizen, edo ez... Faktore asko hartu behar dira kontutan.

Hala ere, 2017an Paun Munduko Txapelketa da, gainera Frantziatik antolatzen dituen lehiaketak sekulako txapelketak izaten dira, hori



Chourrautek judoa, igeriketa eta atletismoa probatu zituen goi-mailako piraguista izan aurretik, kirolari sena du alabak ere.

ezin da alde batera utzi, Paun asko entrenatzen dugulako eta bertan oso azkarrak garelako. Horrekin urte bat jan duzu. Gainera, 2019an La Seu d'Urgellen izango da Munduko Txapelketa. Etxean Mundial bat, goxoki polita, hori ere ezin da galdu, urte preolimpikoa da gainera, plaza olinpikoa egongo da jokoan.

Bateko eta besteko, 2020an jartzen zara, Tokyon. Urte dezenterekin ailegatuko nintzateke, baina ez dago hain urrutia. Badakit sasoi eduki daitekeela adinean aurrera eginda ere. Piraguista beterrano onak badaude, azkarrak adinean gora egin arren. Ez dakit zer gertatuko den, denborari utziko diogu lana egiten, baina 2020rako motibatuta nago gaur egun.

Gustura nabari zaitut. Baina zerbait botatzen duzu faltan? Diru laguntzak adibidez, bai prestaketa-rako, bidaietarako, konpetizioetarako... Oro har, arreta gehiago agian?

Nik niretzako behar dudana badaukat. Askotan kexatzen gara ez dugula jasotzen

behar dugun arreta guztia. Baina bestalde, asko guregan jotzen saiatzen dira eta guguz ezin dugula esaten diegu edo aitzakiak jartzen dizkiegu konpromisoei. Ez da erraza entrenatzen egon eta agenda konpromisoz betetzea, gatazka moduko bat da, politena federazioetik bertatik proiektuak aurrera eramatea izango litzateke, baina zaila izaten da, ez dagoelako diru askorik, aurrekontu murriztuekin ibiltzen gara...

Okerrago ere egon ginetzkeen, baina hobeto ere bai. Ni, pertsonalki, oso eskertuta nago, piraguismoaz bizi naiz, baina ez naiz profesionala, beken eta diru-laguntzen bidez ateratzen dut ogibidea. Jasotzen ditudan mota guztietako laguntzak, jasotzen dudana arreta zein den ikusita, agian, nik ez dut nahikoa itzultzen. Entrenatzen bai, esfortzua ez dut sekula negoziatzen, baina uretatik kanpoko gauzetan agian gehiago egin beharko nuke, egia da.

Mantentzen al duzu harremanik Lasarte-Oriarekin? Ni lasartearra naiz, Lasarten daukat familia eta lagunak, nire txokoa Lasarten dago. Gero eta gutxiago etortzen naiz kanpoan denboraz asko ematen dudalako, haur txikiarekin ezin dut nahi dudanean hiru egunetarako hona etorri, nahikoa dauka Anek egiten ditugun bidaiak guztiekin. Gabonetan etorri nintzen eta tarteren bat dudanean itzultzen naiz. Gainera Anek ere egon behar du bere aitona-amonekin izaba-osabekin...

Minarena orduan... Urrezko domina nahi nuen, eta iritsi nintzanean eta ikusi nuenean hirugarrena nintzela pentsatu nuen: 'Akabo, urrea irabazteko aukera joan egin zait'. Niretzat izan zen: 'Galdu ditut Jokoak', ez zen izan 'brontzea daukat'. Nire helburua Jokoak irabaztea zen, urrea, ez nuen beste ezer nahi... Eta orain ere urrea nahi dut. Ez dut inoiz Munduko Txapelketa bat irabazi, zilarra eta brontzea daukat, baina urrerik ez. Urrea nahi dut. Irabazi egin nahi du eta ikusi inork ez duela nik baino hobeto egin, ni izan naizela onena. Hori nahi dut.

Txintxarriko kazetaria izango bazina eta 2016ko Jokoen titular bat idatzi behar izango bazenu, zer idatziko zenuke? 'Maialen Chourrautek urrea lortu du'.



Piragua berria du Chourrautek, 'ametsetakoa' haren hitzetan. "Txikia da, nire neurrikoa, tiro bat bezela doa", adierazi du.

LABURRAK.-

Iñigo Altuna Bazpiko txirrindularia garaile
Debako lasterketan, jubeni mailan

Denboraldi ona darama Iñigo Altuna lasarteoriatarak. Ziklokro-sean maila bikaina eman zuen Amorebietako probairabazita eta Euskadiko selekzioak deitu zuen Espainiako txapelketan lehiatzeko. Orain, errepideko denboraldian murgilduta dago buru-belarri.

Debako lasterketa irabazi zuen lehenengo urteko jubeni gazteak. Ihesaldian erabaki zen 86 kilometroko proba, Altuna eta beste sei iheskideren arteko esprintarekin. Azkarrena izan zen lasarteoriatarra eta Debako hondartza aurreko zuzengunean bi besoak jaso zituen. Podiumean kide izan zituen Gari Lagnet bigarren postuan eta Xabier Murgiondo hirugarrenean.

Kadete mailan ere berri onak, Luken Carbayedak bigarren egin zuen Azpeitian, aurrez Eibarren lortu zuen postu berbera hain zuzen. Unai Iribarrek hartu zion aurrea Bazpiko ziklistari eta hirugarren izan zen Urko Semperena. Gainera, Bazpiko beste bi txirrindularik ere lortu zuten Azpeitiko lasterketa amaitzea. Asier Ibarbia eta Manex Altuna 27. eta 29. izan ziren hurrenez hurren, irabazlearengandik minutu eta erdira helmugaratuta. Postu horiekin, Usurbil eta Lasarte-Oriako ziklistez osatutako taldea laugarren izan zen taldekako sailkapenean. Aipagarria da kadeteen tropelak 48 kilometroko proban egin zuen batz besteko abiadura: 40.8 kilometro orduko.



LOKEko judokak Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan, infantil eta kadete mailan

Infantilen Gipuzkoako txapelketan eta Kadeteen Euskadikoan parte-hartu zuten LOKEko judokak, denera klubarentzat sei domina eskuratu.

Infantil mailan, herriko sei judokak parte-hartu zuten eta emaitza ikusgarria izan zen bost domina eskuratu; hiru urrezko eta bi zilar, bosgarren postu batera.

Ander Garridok bere konbate guztiak irabazi zituen urrea kolokartzeko, Jesus Curielek eta Alex Saletak bi borrokaldi irabazi zituzten Gipuzkoako txapela janzteko eta Yeray Medibek, txapelketa bikaina osatuta, finalera iristeko balio izan zioten hiru borrokaldiak irabazi eta finalean zilarrekin konformatu behar izan zuen, Erik Bermejok bezalaxe. Azkenik, Unai Posadak 5. tokian amaitu zuen txapelketa.

Domina eskuratu zuten bostak apirilaren 18an Gasteizen ospatuko diren Euskadiko txapelketan arituko dira lehian, Espainiako Txapelketarako txartelaren bila.

Kadete mailan, Jon Herreroen lana da azpimarratzekoa. Zilarra eskuratu zuen LOKEko judokak Gorka Aristegi prestatzailearen esanetan "lehiaketa izugarria" burututa. Txanponaren beste aldean Haritz Urdangarin gaztea, oraingo honetan ez ziztaion txapelketa onik atera. Emaitzak ikusita, "oso gustura" zen Aristegi bere mutilek egindako lan eta esfortzu guztiarekin.



SQUASH.-

Hasi da XXVII. Squash Txapelketa soziala

Hamabost gizonen hartuko dute parte Lasarte-Oriako Udal-kiroldegian jokatuko den lehiaketa, hiru hilabetez

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak hogeita zazpigarren Squash txapelketa soziala antolatu du. Txapelketa apirilaren 7an hasi zen eta ekainera arte garatuko da. Bertan izango da Kinin Calvo iazko txapelduna, beste hamalau squash jokalarirekin batera txapela janzteko borrokan.



Iazko finalisten irudia, Karlos Altuna Udal teknikaria eta Taxio Arrizabalaga zinegotziarekin.

TXINTXARRI

Hamabost jokalarik hartuko dute parte 2015eko Lasarte-Oriako Squash Txapelketan, bi taldetan banatuta. Txapelketak hiru fase izango ditu, ekainera bitartean.

Lehenengo fasea ligaxka-sistemaren bidez jokatuko da, itzuli bakarrean. Talde bakoitzeko lehenengo hirurak sailkatuko dira txapeldunen fasea jokatzeko.

Dena den, txapeldunen fasea jokatu ahal izateko lehenengo faseko partida guztiak jokatu beharko dira.

A ligaxkan parte-hartuko dutenak Kinin Calvo iazko irabazlea, Javier Serrano, Imanol Olaizola, Aitor Tejero, J. Joaquín Peña, Oswal Cañedo, Eneko Gartzandia eta Juanjo Martin.

B ligaxkan, Iker Cañedo iazko azpitxapelduna, Iñaki

García, Julen Urruzola, Xabi Amiano, Gorka Lara, Roger Hidalgo eta Dani Dávila.

Txapeldunen fasea

Sailkatu diren sei jokalariek bigarren fasea ere ligaxka bidez jokatuko dute. Ligaxkako lehenengo biek finala jokatuko dute eta hirugarrenak eta laugarrenak kontsolazioko finalean lehiatuko dute brontzea.

Bestalde, txapeldunen faserako sailkatzen ez diren gainontzeko parte-hartzaile guztiak kontsolazioa jokatuko dute kanporaketa-sistemaren bidez.

Tanteoaren arauak

Partiduak 5 jokatzen onenak irabaziko ditu. Joko bakoitza 15 tantokoa izango da.

Orduetegiari dagokionez, partiduak asteleheneetik ostiralera bitartean jokatuko dira, 18:00etatik 20:00etara bitar-

tean (hiru partida jokatzen diren egunetan 21:00ak arte).

Partidaren bat jarritako egun eta orduan jokatzerik ez badago, tartean dauden jokalariek ados jarri beharko dira astebeteko epean jokatzeko. Aurrekoa betetzen ez bada, atzerapena eragin duenari partida galdutzat emango zaio.

Partida batentzat egutegian jarritako orduaren aurretik bakarrik egin ahal izango da doako ordu aldaketa pistaren erreserban. Jokalari bakoitzak, gehienez, hiru ordu-aldaketa egin ahal izango ditu pistaren erreserban.

Arrazioa edozein dela, jokalariren batek txapelketa utziz gero, erretiratuta edo lesionatuta, jokatu dituen partiden emaitzak balio gabetzat joko dira.

Txapelketaren egutegia ez da aldatua izango lesioengatik.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 11

Michelin, 10:00etan
Ostadar SKT-Sanse
Infantilen Errendimendu kopa
4. jardunaldia.

Michelin 12:00etan

Ostadar SKT - Beasain
Kadeteen Euskal Liga
29. jardunaldia.

Michelin 16:30ean

Ostadar SKT - Aloña Mendi
Ohorezko Erregional Maila
22. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 10

Herriko areto-futbol txapelketa, 22. jardunaldia
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Bar El Punto - Urdaneta HK
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Trumoi - Reformas Lagunak

Larunbata 11

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Bar Also - Insausti

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Izkiña - Txoko Taberna

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Indaux - Txindoki

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Viña del Mar - Ilargi

TXIRRINDULARITZA

Igandea 12

Elgoibar 16:00ean

Bazpiko txirrindulari juniorrek XXXV. Elgoibarko hiria sarian parte hartuko dute.



— Agenda —

Ostirala, gaur, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean



Munstroei aurre eginez

Atzerriko film onenaren Urrezko Globo lortu zuen "Leviathan" filma Okendo zinema taldearen zine forum saioan. Errusia iparraldeko kostaldeko herritxo batean bizi da Kolia. Mekanikaria da, eta mekanika tailer bat du bere etxe alboan. Tailerretik ateratzen du bizimodua, eta tailerraren alboan duen etxean bizi da bere emazte gaztearekin eta semearekin. Semea aurreko harreman batean jaiotakoa da. Herriko alkateak Koliaren etxearen eta tailerraren jabe egin nahi du, baina Kolia ez dago saltzeko prest. Jatorrizko hizkuntzan gaztelarazko azpitituluekin. Sarrera 5,50 euro.

SAN PEDRO ELIZAN

Larunbata 18, 20:00etan

Ars Combinatoria ahots talderen emaldia izango da. Erdi Aroko musika eskainiko dute. Doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 19, 12:00etan

Lasarte-Oriako SuBerri akordeoi orkestraren kontzertuaz gozatzeko aukera. Doan.

Tailerra

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 18, 11:00etan

Haurrei zuzendutako Pazko-arrautzak apaintzeko tailerra egingo da.

Usurbil

Antzerkia

SUTEGI

Larunbata, 19:30ean

Anabel Arraiza eta Inazio Tolosa aktoreek Alex Tello usurbildarrak zuzendutako "Zu gabe" antzezlana eskainiko dute. Sarrera 6 euro egunean bertan. Gattunk #Kilometroak15 antolutako ekintza.

Haur antzerkia

SUTEGI

Osteguna, 19:00etan

Pantzar Teatrok Bihar Taldearekin batera ekoiztutako Mariasun Landaren Txan Fantasma liburuan oinarritutako haur txotxongilo ikuskizuna eskainiko du. 5 eta 9 arteko haurrei zuzendua. Sarrera zehazteke.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 20:00etan

"Perdiendo el norte" filma helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Into the woods" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Perdiendo el norte" umorezko filma

helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirilean zehar

Haur eta gaztetxoek 2014 urteko Udako Txoko eta Kanpaldiak gogora ekartzeko argazki erakusketa antolatuta da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 13-Ostirala 24, 18:00etatik 21:00era

XV. eta XVI. mendeetako Moldaviako

arte ikusgai izango da. Decebal, Errumania-Euskadi elkarteak antolatua Kultura sailaren laguntzaz. Doan.

III. Musika Astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 16, 20:00etan

Haize-instrumentuez osatutako Hirubi boskotearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 17, 20:00etan

Mikel Urdangarin bakarlariaren kontzertua. Sarrera 5,50 euro.

— Herritarren txokoa —

Udako Txoko eta Kanpaldietan begiraleak behar dira

Uztaila edo abuztuan zehar Udako Txokoetan herriko gaztetxoekin primeran pasa edo Mendigorria eta Donemiliagan udaleku itxietan ibilaldiak egin eta milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek izena emateko aukera dute dagoeneko.

Begirale ugari behar dira batez ere Udako Txokoetarako. Aisia saileko arduradunek azpimarratu dutenez, bi baldintza daude 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukuna izatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun Kultur elkartera hurbildu edo aisia@ttakun.com helbidera mezu bat bidali besterik ez du. Begirale poltsan izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako. Normalean hilabeteko iraupena duten erakuske-


tak izanten dira Jalgin jartzen direnak. Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke. Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

Lasarte-Usurbil institutoko zozketa

Martin Berasategi jatetxean bazkaria irabazi duen zenbaki sariduna 1949 da. Hau daukanak Institutotik pasa behar duela jakitera eman du zentroak.

— Hemeroteka —

Duela 1116 ale



GARAIPEN GARRANTZITSUAK MAHAI TENISEAN:

Mahai tenis taldea zuen garai batean Lasarte-Oria Kirol Elkarteak. Urte luzeetan kirol honetan aritzeko aukera izan zuten herritarrek nahiz eta egun desagertuta egon. 1999. urteko martxoaren amaieran, TXINTXARRI-n taldeak eskuratutako azken lorpena jasotzen zen. Abadiñoko taldea menderatuta, bigarren mailatik lehenengo mailara igotzeko aukera eskuratzen zuten herrikoek. Iñaki Blanco, Iñigo Ruiz eta Antonio Varelak osatutako taldeak bigarren urtez jarraian lortzen zuten mailaz igotzeko fasea jokatzen zuten aukera, lehenengoan huts egin ostean. Bestalde, eskolarteko txapelketan herriko gazteak izan ziren nagusi Hernanin. Besteak beste, Asier Paniaguak finala irabazi zuen alebinetan eta Iñaki Garciak infantiletan. Gipuzkoako txapelketa zuten hurrengo erronka gazteentek.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Xabier Andonegi apaizak gidatu zituen fededunak Sausta baserri aurreko aldarera.



Juan Luis Murua apaiza Azkorterako Gurutze Bideko lehen urratsetan.



Igandeko meza nagusian eliza goraino beteta, Jesusen berpizkundea ospatzeko.



Eguraldi zoragarria lagun, Zumaburuko elizatik Azkorterera egin zuten Gurutze Bidea hainbat herritarrek.

Aste Santuko ospakizunak

Herriko fededunek elizetan mezak eta prozesioak egin zituzten ohitura den moduan

Lasarteoriatar fededunek urteroko elizkizunak ospatu zituzten Aste Santuan. Ostegun Santuko Meza Nagusiekin Jesusen apostoluekin eginiko azken afaria ekarri zuten gogora; Ostiral Santu egunean berriz, Jesusen Gurutzebidea gogoratu zuten eta azkenik, larunbat gaueko Pazko Gaubelan eta baita Pazko igandean ere Jesusen berpizkundearengatik otoitz egin zuten denek.

TXINTXARRI

Egun garrantzitsuak izan ziren apirilako lehenak Lasarte-Oriako kristautentzat. Herritar askorentzat Aste Santua opor garaia eta deskantsatzeko aukera baino ez den bitartean, kristautentzat egun seinalatuak dira eta aurtan ere ez dute hutsik egin eliza katolikoak jarritako zitan.

Gurutze Bideak

Ostegun Santuan, apirilaren 2an, meza ospatu zen herriko hiru elizetan. Brijitarren komentuan elebitan egin zen, San Pedro elizan gaztelaraz eta Arantzazuko elizan euska-

raz. Komentuan ere, Ordu Santuko otoitza egin zuten fededunek gauetz.

Kalbario bideak, Gurutze Bideak edo Via Crucis izenez ezagutuak diren bideak egin zituzten Ostiral Santuan, Kristoren gurutzera eraman zuen bideko etapa bakoitzean otoitz eginez eta geldialdi bakoitzeko ibilaldi tartea kantuz girotuz.

Goiztiarrenak San Pedro parrokiako lagunak izan ziren. Jende mordoia bildu zen eliza aurrean goizean goiz, giro eguzkitsu eta freskoarekin Sausta baserri ondoko aldare txikira bidea egiteko Xabier Andonegi apaizak gidatuta. Behin

Sausta aurreko aldarera iritsita, azken irakurketa egin eta "Gure aita" batekin amaitu zuten Via Crucis-a.

Arantzazuko Amako Parrokiako eliztarrek, berriz, Azkorterera egin zuten bidea, beranduxeago, goizeko 10:00etan hasita. Eguraldi zoragarria lagun, tipi-tapa osatu zuten Azkorteke basilizarako bidea Juan Luis Murua apaizak gidatuta. Brijitarren komentuan, azkenik, 11:00etan egin zen Gurutze bidea kaperan bertan.

Pazko gaubela

Baina ez ziren hor bukatu Aste Santuko ospakizunak. Larunbat iluntzean Pazko Gaubela ospatu zuten Brijidatarren komentuan eta gauean, aldiz, gauza bera egin zuten San Pedro elizan.

Pazko igandean azkenik, eguerdiko meza nagusian, Jesusen berpizkundearengatik egin zuten otoitz herriko elizetan bildu ziren ehunka herritar eta sinisdunek.

LIKIDAZIOA TELEBISTETAN

ERAKUSKETA ALDAKETA

Bideo = TIEN 21 = Lagunak

Etxeak eta enpresa elektrikoak laguntzeko

12 ORDAINDU HILABETETAN INTERESIK GABE

Zatoz eta konparatu!

TIN: 0% TAE: 0%